



2. DOKUMENTUA

BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN (BBUP) INSTALAZIOAK SODIO HIPOKLORITOK (% 12,5) HORNITZEA

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Sodio hipoklorito likidoa (% 12,5) Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (BBUP) saneamendu-instalazioetan erabiltzen da, bereziki, Galindoko eta Lamiarango hondakin-uren araztegietan (HUA) eta hornidura-instalazioetan, eta, zehazki, Burgoko eta Bermeoko EUTetan.

Hauek dira instalazio bakoitzean urtebeterako aurreikusitako kontsumoak:

NaClO, zisternak	Galindoko HUA	340.000 kg
NaClO SOH (IBC) 1 m ³	Galindoko HUA	140.000 kg
NaClO, zisternak	Lamiarango HUA	10.000 kg
NaClO SOH (IBC) 1 m ³	Lamiarango HUA	35.000 kg
NaClO, zisternak	Burgoko EUTa	10.000 kg
NaClO SOH (IBC) 1 m ³	Burgoko EUTa	50.000 kg
NaClO, zisternak	Bermeoko EUTa	10.000 kg
NaClO SOH (IBC) 1 m ³	Bermeoko EUTa	40.000 kg
GUZTIRA		635.000 kg

Aipatutako zenbatekoak adierazgarriak izango dira, eta guztira hornitu beharreko azken kantitatea aldatuko dira benetako beharren zein diren; hala bada, ez da hornitu beharreko gutxieneko kantitaterik ezarriko, eta horrek ez du inolako aldaketarik eragingo gainerako kontratu-kondizioetan.

Kontratuaren barruan sartzen da, eta ondorioz, hornitzailearen ardura da, produktua jatorrian ontziratzea, jatorrian kargatzea, helmugaraino garraiatzea eta HUAetan eta EUTetan deskargatzea.

2. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

2.1. EZAUGARRI FISIKO KIMIKOAK

Sodio hipoklorito likidoak ezaugarri hauek izango ditu:

A. Produktuaren identifikazioa

- Izen kimikoa: Sodio hipokloritoa
- Beste izen arrunt batzuk: Lixiba likidoa
Sodio hipokloritoa



- Formula enpirikoa: NaClO
- CAS¹ erregistro-zenbakia: 7681-52-9

⁽¹⁾CAS: Chemical Abstracts Service Registry Number

Propietate fisikoak eta kimikoak

- Kloro aktiboaren kontzentrazioa >160 g/l +/-10
- Dentsitatea 20 °C-tan 1,13-1,23 kg/l
- Uretan nahastu daiteke, edozein proportziotan
- Kristalizazioa -20 °C eta -30 °C artean
- pH >11 20 °C-tan
- Materia disolbaezinak: Produktuak ez du eduki behar ageriko metakin edo materia esekirik.
- Sodio klorato edukia: Fabrikatzaileak banatzen duenean, kloroaren masa-frakzio eskuragarriak ezin du izan % 5,4 baino handiagoa.

Produktuak ez du izango dosifikazio-lanetan eragina duen materialik eta ez du edukiko ez gehigarririk, ez ezpurutasunik, uraren kalitatea narriatzeko eta erabiltzaileen osasunean ondorio kaltegarriak eragiteko besteko kontzentrazioetan.

B. Parametro kimikoak

Produktuak UNE-EN 901:2013 arauaren 4.4 apartatuko 1. taulan zehaztutako baldintzak bete behar ditu, 1. motako kalitateari dagozkionak:

EZPURUTASUNAK	Kloro erabilgarriaren muga, mg/kg (1. mota)
Artsenikoa (As)	1
Antimonioa (Sb)	20
Kadmioa	2,5
Kromoa	2,5
Beruna	15
Merkurioa	3,5
Nikela	2,5
Selenioa	20
	Kloro erabilgarriaren muga, g/kg
Sodio bromatoa (gehienez)	2,5

C. Fabrikazio-data

Instalazioan entregatu aurreko 15 egun naturalen barruan fabrikatuko da sodio hipokloritoa. Entrega-albaranean adieraziko da fabrikazio-data.

2.2. SALGAI ARRISKUTSU GISA SAILKATZEA



Disolbatuta emaniko hipokloritoak ADR Akordioan jasotako araudi arauemailea beteko du. Araudi horren arabera, salgaiak NBERen zenbaki hau du: 1791.

Sodio hipokloritoak «ingurumenerako materia arriskutsua» dela identifikatzeko marka edo plaka eduki behar du, arrisku-esaldi hauekin baitago kategorizatuta:

- R50: OSO TOXIKOA DA URETAKO ORGANISMOENTZAT
- H400: Arriskutsua ur-ingurumenerako – Arrisku akutua – 1. kategoria – Adi (CLP: Aquatic Acute 1)

Garraioaren ikuspegitik, betetzekoa izango da Espainiar lurraldeko errepideetan zehar salgai arriskutsuen garraioak arautzen dituen otsailaren 14ko 97/2014 Errege Dekretua, bai eta Salgai arriskutsuen errepide bidezko nazioarteko garraioari buruz indarrean dagoen Europako Akordioa (ADR) ere.

2.3. PRODUKTUAREN BIDALTZAILEA ETA/EDO KARGATZAILEA

Bidaltzailea salgai arriskutsua bidaltzeko agindu eta ordaindu duen pertsona fisikoa edo juridikoa da, zeinarentzat garraioa egiten den, eta hala ageri dena garraio-gutunean.

Zisterna-kargatzailea edo betetzalea salgai arriskutsuak zisterna batean sartzen dituen enpresa da.

Kargatzailea salgai arriskutsuak ibilgailu batean edo ibilgailu baten gainean fardeletan kargatzen dituen edozein enpresa da.

Adjudikaziodunak (bidaltzailea edo kargatzailea) ADR Akordioaren 1.4 kapituluaren adierazten diren betebeharrak bete beharko ditu.

Salgai arriskutsuen bidaltzaileak ADR Akordioan jasotako xedapenen arabeko bidalketa bat igorri beharko du garraiatzeko. Eginbehar hauek izango ditu, zehazki:

- a) Salgai arriskutsuak ADR Akordioaren arabera garraiatzeko sailkatuta eta baimenduta daudela egiaztatu beharko du.
- b) Eskatzen diren oharra eta informazioak, eta, hala dagokionean, garraio-gutunak eta laguntza-dokumentuak (baimenak, adostasunak, jakinarazpenak, ziurtagiriak eta abar) eman beharko dizkio garraiolariari.
- c) Solteko salgaietarako (SOH [IBC]) ontziak, enbalajeak, ontzi handiak eta eraginpeko salgaiak garraiatzeko onartuta dauden eta egokiak diren zisternak bakarrik erabili beharko ditu. Horiek guztiek, gainera, ADR Akordioan xedatutako markak eraman beharko dituzte.
- d) Bidaltzeko moduari buruzko eta bidalketa-mugei buruzko xedapenak bete beharko ditu.
- e) Kontu hartu beharko du hutsik eta garbitu gabe dauden zisternak ere behar bezala markatuta eta etiketatuta egon daitezen; itxita egon beharko dute eta beteta daudenean dituzten hermetikotasun-berme berberak eduki beharko dituzte.

Bidaltzaileak beste parte-hartzaile batzuen zerbitzuak behar baditu (kargatzailea, zisterna-kargatzailea eta abar), neurri egokiak hartu beharko ditu bidalketak ADR Akordioaren xedapenak



betetzen dituela bermatzeko. Hala ere, a), b), c) eta e) kasuetan, fida daiteke beste parte-hartzaile batzuek emandako informazioez eta datuez.

Bidaltzaile batek hirugarren batentzat lan egiten badu, hirugarren horrek bidaltzaileari idatziz adierazi beharko dio salgai arriskutsuak direla eta bidaltzailearen esku jarri beharko ditu bere eginbeharrak betetzeko behar diren ohar eta dokumentu guztiak.

Bidaltzaileak garraio-gutunak egin beharko ditu, zeinetan instalazio bakoitzeko enpresa ustiatzailea azalduko den hartzaile gisa, baina kontratu honetan barne hartzen diren hainbat instalaziotan deskarga partzialak egin behar badira, garraio-gutun bat baino gehiago prestatu beharko ditu edo, bestela, helbide bat baino gehiago dituen gutun bat. Salgai arriskutsuak garraiatzeko prestatzen dituenean, egiaztatuko du agindutako panel laranja eta plaka-etiketak zisternetan eta ibilgailuetan xedapenen arabera jartzen direla.

Zisterna-kargatzaileak edo zisterna-betetzailak eginbehar hauek izango ditu bereziki:

- a) Zisternak bete aurretik, egiaztatu beharko du zisternak eta zisternen ekipamenduak egoera tekniko onean daudela.
- b) Egiaztatu beharko du ez dela igaro zisternen hurrengo probaren data.
- c) Zisterna horietan garraiatzeko baimendutako salgai arriskutsuekin bakarrik bete ahal izango ditu zisternak.
- d) Zisterna bete bitartean, ondoko tangetan dauden salgai arriskutsuei buruzko xedapenak errespetatu beharko ditu.
- e) Zisterna bete bitartean, gehieneko betetze-indize onargarria edo edukiaren gehieneko masa onargarria errespetatu beharko du zisterna betetzeko erabiliko den salgaiaren edukiera-litro bakoitzeko.
- f) Zisterna bete ondoren, egiaztatu behar du ixte-elementu guztiak behar bezala itxita daudela eta ez dagoela ihesik.
- g) Kargatzaileak egiaztatu beharko du berak bete dituen zisternen kanpoaldean ez dela itsatsi zisterna betetzeko erabili den salgaiaren hondakin arriskutsurik.
- h) Salgai arriskutsuak garraiatzeko prestatzen dituenean, egiaztatuko du agindutako panel laranja, etiketak edo plaka-etiketak xedapenen arabera jarrita daudela zisternen gainean ibilgailuetan.

Kargatzaileak betebehar hauek izango ditu bereziki:

- a) Salgai arriskutsuak garraiatzeko ADR Akordioaren arabera baimenduta badaude bakarrik entregatu beharko dizkio garraiolariari.
- b) Garraiatzeko bildutako salgai arriskutsuak jarritakoan, egiaztatu beharko da presioko ontziak ez daudela hondatuta. Ontziak/enbalajeak hondatuta dauzkan fardel bat ezingo da banatu entregatzeko, batez ere ez badira estankoak eta salgai arriskutsuak ihes egiten badu edo ihes egiteko aukera nabari bada, harik eta kalte hori konpondu arte.
- c) Salgai arriskutsuak ibilgailu batean kargatzen dituenean, kargari eta karga maneiatzeari buruzko xedapen bereziak bete beharko ditu.
- d) Fardelak kargatzean, kontuan hartu beharko dira guztien karga-debekuak, eta aintzakotzat hartu beharko dira, orobat, ibilgailuan lehendik dauden salgai arriskutsuak, bai eta



elikagaiak, bestelako kontsumo-objektuak edo animalientzako elikagaiak bereizteari buruzko xedapenak ere.

Kargatzailea, a) eta d) puntuen kasuan, fidatu ahal izango da beste parte-hartzaile batzuek (bidaltzailea eta/edo enbalatzailea) adierazitako informazio eta datuekin.

Xedapen horietakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izango da karga jatorrira itzultzeko.

2.4. GARRAIOA

Garraiolariak, bereziki, betebeharrak izango ditu:

- a) Egiaztatu beharko du garraiatu behar diren salgai arriskutsuak baimenduta daudela ADR Akordioaren arabera garraiatzeko.
- b) Ziurtatu beharko du ADR Akordioan xedatutako informazio guztia —garraiatuko diren salgai arriskutsuekin lotura duena— bidaltzaileak eman duela garraioa egin aurretik, dokumentazioa garraio-unitatean dagoela, edo paperezko dokumentuak erabili ordez, datuen prozesamendu elektronikoa egiteko teknikak (EDP) edo datu elektronikoak trukatzeko teknikak (EDI) erabiltzen badira, garraioa egin bitartean datuak eskuragarri daudela paperezko dokumentazioaren baliokidea den modu berean gutxienez.
- c) Begiz egiaztatu beharko du ibilgailuek eta kargak ez dutela ageriko akatsik, ihesik edo pitzadurarik, ekipamendu-gailu guztiak dituztela eta abar.
- d) Zisterna-ibilgailuen hurrengo probaren data ez dela igaro egiaztatu beharko du.
- e) Ziurtatu beharko du ibilgailuak ez direla gehiegi kargatzen.
- f) Egiaztatu beharko du jarrita daudela ibilgailuetarako agindutako arriskuaren plaka-etiketak eta seinaleak.
- g) Jarraibide idatzietan gidariarentzat adierazitako ekipamenduak ibilgailu barruan daudela egiaztatu beharko du.

Hori guztia, hala dagokionean, garraio-gutunaren eta dokumentu osagarrien arabera egin beharko da ibilgailuaren edo edukiontzien, eta, hala dagokionean, kargaren ikusizko azterketa eginez.

Hala eta guztiz ere, garraiolaria, a), b), e) eta f) kasuetan, beste parte-hartzaile batzuek (bidaltzailea edo kargatzailea) emandako informazioez eta datuez fidatu ahal izango da.

Garraiolaria konturatzen bada ADR Akordioko xedapenak betetzen ez direla, ez du bidalketa egin beharko dena konpondu arte.

Ibilbidean garraioaren segurtasuna arriskuan jar dezakeen arau-hauste bat nabarituz gero, ahalik eta azkarren gelditu beharko da bidalketa, kontuan izanik zirkulazioarekin, bidalketak geldiaraztearekin eta segurtasun publikoarekin lotutako segurtasun-aginduak.

Adjudikazioduna (bidaltzailea eta/edo kargatzailea) izango da erantzule zuzena, BBUPen zein hirugarrenen aurrean, produktua kargatzean (bere instalazioetan) eta garraiatzean izandako istripu edo gorabeherak eragindako edozein motatako kalteak izanez gero, baita garraibidearen edozein elementu oker garbitu izanaren ondorioz kalteak sortuz gero ere.



Galarazi egingo da fardeletan dauden salgai arriskutsuak deskargatzea —hala nola solteko salgaietarako ontzi handiak (IBC/SOH)—, horietatik zuzenean amaierako kolektorera. Eragiketa hori egin ahal izateko, ibilgailu eramaileko fardelak deskargatu beharko dira aurretik.

Fardelen bidezko garraio-gutunean datu hauek azalduko dira gutxienez:

- a) Salgaiaren bidaltzailearen (garraioa kontratatu duenaren) izena eta helbidea.
- b) Salgaiaren hartzailearen izena eta helbidea (BBUPeko instalazioetako enpresa ADJUDIKAZIODUNAREN ETA USTIATZAILEAREN datuak adieraziko dira).
- c) Garraiatutako salgaiaren izendapena.
- d) Fardel kopurua.
- e) Fardel mota.
- f) NBE zenbakiaren bidez bereizitako salgai arriskutsu bakoitzaren guztizko kantitatea, bolumen gisa edo masa gordin edo masa garbi gisa adierazita, kasuaren arabera, baina kantitatea nola adierazi den zehaztuta.

Zisterna bidezko garraio-gutunean datu hauek azalduko dira gutxienez:

- a) Salgaiaren bidaltzailearen (garraioa kontratatu duenaren) izena eta helbidea.
- b) Salgaiaren hartzailearen izena eta helbidea (BBUPeko instalazioetako enpresa ADJUDIKAZIODUNAREN ETA USTIATZAILEAREN datuak adieraziko dira).
- c) Garraiatutako salgaiaren izendapena.
- d) Salgai arriskutsuen kantitatea kilogramotan edo litrotan (zehaztu erabilitako unitatea).
- e) Gehieneko betetze-maila.

BBUPek ez du inolako erantzukizunik onartuko baldintza horiek ez betetzeagatik.

2.5. HORNIDURA ETA ONTZIAK BIRZIKLATZEA

Hornidura zisterna bidez edo 1.000 litroko SOH (IBC) bidez egin beharko da, HUAen/EUTen beharren arabera. Produktua biltegitatzeko erreserbatutako lekuan kokatuz egingo dira hornidurak. Eragiketa guztiak, karga eta garraioa barne, hornitzailearen kontura izango dira, eta ADR Erregelamenduaren legezko baldintzak bete beharko ditu.

Produktuaren hornidura 1.000 litroko plastikozko SOHetan (IBC) egiten bada, barrenetik hustekoak izango dira eta babesteko egitura metalikoa edukiko dute.

- SOHak (IBC) homologatuta egongo dira. Barruan plastikozko ontzia duten SOHak (IBC) fabrikazio-datatik bost urtera iraungiko dira. Ez da onartuko iraungitako SOHrik (IBC).
- Barruan duten salgaiari dagokion NBE zenbakia izango dute eta, zenbakiaren aurretik, «UN» letrak agertuko dira argi eta modu iraunkorrean, bi aldeetan. UN 1789 inskripzioak gutxienez 12 mm-ko altuera izango du.
- 8. zenbakia duten etiketak aplikatuko dira SOHaren (IBC) gainazalean, alde banatan, eta kontu hartu beharko da ez daitezen geratu estalita edo tapatuta ez enbalajearen zati batekin edo edozein elementurekin, ez beste edozer etiketa edo markarekin.



- Etiketa bat baino gehiago erabili behar direnean, bata bestearen ondoan jarri beharko dira.
- SOHeK (IBC) kontrako alde banatan eraman beharko dituzte markak (UN 1789 eta 8. etiketa).

Enbalaje bakoitzak behar bezala etiketatuta egon beharko du, informazio hauek adierazita: edukia, pisu garbia, fabrikatzailea, produktuaren marka eta segurtasun-neurriak.

Hornidura zisternan egiten bada, L4BN izango da zisternaren kodea. Kode hauek ere onartzen dira:

- 4 beharreen 10, 15 edo 21 dutenak
- B baten ordez C edo D bat dutenak
- N izan beharreen H dutenak

Benetan hornitutako produktu kantitateak eskaeran eskatutakora egokituko dira. BBUPi egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik bidalitako produktuaren kantitatea eskaeran eskatutakoa baino handiagoa bada, ez da bermatuko bidalketa oso-osorik deskargatuko denik, eta instalazioaren biltegitratze-educiera gaingintzen duen zati bat edo eskaera osoa itzultzeko aukera egongo da; nolanahi ere, horrek ez dio hornitzaileari eskubiderik emango erreklamaziorik egiteko.

Kasu horretan, garraiolariak dakarren garraio-gutuna aldatu egingo da; honela:

Helmugan deskargatutako kantitatea:

Bidaltzaileari itzulitako zenbatekoa:

Ontziak birziklatzea: hornitzaileak erretiratu egin beharko ditu ontzi hutsak, eta haiek birziklatzeaz arduratuko da, hondakinak kudeatzeari loturik indarrean dagoen legeria betez.

BBUPek ez du ontzi bakar baten gaineko kargurik eta ordainketarik onartuko. Adjudikaziodunak aukera hori kontuan hartu beharko du prezioa zehazteko garaian.



2.6. HORNIDURA JASOTZEAREN KONTROLA

Hornitzailearen kontura izango dira zamalan- eta garraio-eragiketa guztiak. Kamioiek, premiazko arrazoiengatik izan ezik, jarraian adierazitako ordutegietan deskargatu beharko dute produktua, nola eta ez den beste ordutegi bat adierazten eskaera egitean. Ordutegi horretatik kanpo ez da bermatzen deskargatzeko aukera egongo denik.

- Galindoko hondakin-uren araztegia: astelehenetik ostiralera, eta, kasu guztietan ere, lanegunetan, 15:00etatik 20:00etara.
- Gainerako plantetan: astelehenetik ostiralera eta, kasu guztietan ere, lanegunetan, 8:00etatik 13:00etara.

Hornidurak instalazio bakoitzean egingo dira, eta produktua ustiapen-zerbitzuek adierazitako tokian jarriko da. Instalazioko zerbitzuko langileek eta, bereziki, txandaburuak edo postuen koordinatzaileak arduratuko dira deskarga ikuskatzeaz, deskarga eta segurtasuneko ekipoen egoera eta funtzionaltasuna egiaztatzeaz, bai eta dokumentazioa egiaztatu eta konformatzeaz ere. Hornitu beharreko instalazioek ez dute deskarga-ponparik; beraz, hornidura zisternan egiten denean, integratuta eduki beharko du ponpa.

Jaso aurretik, ontzien pisua eta egoera egiaztatuko dira, eta, hondatuta egonez gero, uko egingo zaio bidalketari. Egiaztatutako pisuak baliatuko dira hornidurak dagokion ziurtagiriaren bidez ordaintzeko.

Hornidura-partida bakoitzean produktuaren zehaztapen analitikoen orria erantsi beharko da.

BBUPek eskubidea du erreaktiboa deskargatzen den bitartean laginak hartzeko. Hiru lagin hartuko dira: lagin bat BBUPek analizatzeko izango da, eta beste biak, berriz, gordailuan geratuko dira itxita, BBUPen barnean. Bi lagin horietako bat hornitzaileak geroago egiaztatzeko izango da, eta, bestea, hala badagokio, elkarrekin aztertzeko.

BBUPek egindako analisitik ondorioztatutako kalitatea eskatutakoa baino txikiagoa bada, bidalketa jasotzen denetik 10 egun igaro baino lehen emango zaio horren berri hornitzaileari. Hornitzaileak 5 egun natural izango ditu hornitzailearentzat erreserbatutako lagina BBUPen bulegoetatik erretiratzeko. Epe hori igaro eta hornitzaileak lagina kentzen ez badu, suntsitu egingo da, eta ulertuko da hornitzaileak egokitzen hartzen duela BBUPek lortutako emaitza.

Alderaketaren ondoren akordiorik lortzen ez bada, hornitzaileak beste analisi bat proposatu ahalko du erreserbatutako hirugarren laginari buruz; bi aldeek onartutako erreferentziako laborategi ofizial batean egingo da analisi hori, eta laborategi horren emaitzak azken emaitza gisa onartuko dira. Azken analisi horren ondoriozko gastuak hornitzailearen kontura izango dira emaitzak BBUPek egindako analisiarekin bat badatoz, eta BBUPen kontura, berriz, bat ez badatoz. Azken saiakuntza hori behin betikoa izango da produktuaren konposizioa finkatzeko.

2.7. LAGUNTZA TEKNIKOA

Kontratuak dirauen bitartean, enpresa hornitzaileak sorospen-zerbitzu tekniko bat jarriko du BBUPen esku, gutxieneko estaldura honekin:



- Telefonozko laguntza urteko lanegun guztietan, bulegoko ordutegiak, hornitutako produktua erabiltzeari buruzko kontsulta teknikoak ebazteko.

3. NEURTZEA ETA ORDAINTZEA

Hau da urtean aurreikusitako erreaktibo-kontsumoa:

NaClO, zisternak	Galindoko HUA	340.000 kg
NaClO SOH (IBC) 1 m ³	Galindoko HUA	140.000 kg
NaClO, zisternak	Lamiarango HUA	10.000 kg
NaClO SOH (IBC) 1 m ³	Lamiarango HUA	35.000 kg
NaClO, zisternak	Burgoko EUTa	10.000 kg
NaClO SOH (IBC) 1 m ³	Burgoko EUTa	50.000 kg
NaClO, zisternak	Bermeoko EUTa	10.000 kg
NaClO SOH (IBC) 1 m ³	Bermeoko EUTa	40.000 kg
GUZTIRA		635.000 kg

Erreaktiboaren ordainketa instalazio hartzailean deskargatutako kg bakoitzeko egingo da, eta prezioak barnean hartzen ditu garraioarekin eta zama-lanekin loturiko egitekoak. Hornidura SOHn (IBC) egiten denean, barnean hartzen dira ontzi hutsaren bilketa eta kudeaketa ere.

Hornidura hileko ziurtagirien bidez ordainduko da. Hil bakoitzeko 5a baino lehen, hornitzaileak aurreko hilean egindako horniduren zerrenda baloratua aurkeztu beharko du, eta berau oinarritzat hartuko da hileko ziurtagiria egiteko. Hileko faktura hileko zerrenda baloratuarekin bat etorri beharko da.

4. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Adjudikaziodunari dagokio zerbitzua ematen den bitartean laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak antolatzea.

Aurretiko ekintzak

Lanak hasi aurretik, enpresa-jarduerak koordinatuko dira 31/95 Legearen 24. artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta lanerako beharrezkoak diren koordinazio-bitartekoak esleituko dira, lanen arriskugarritasuna, langile kopurua edota nahasitako enpresak kontuan izanik, 171/2004 Errege Dekretuko 14. artikuluekin bat etorritik.

Lanak hasi aurretik, BBUPEk enpresa kontratistaren esku jarriko ditu Lan Baldintzen Arriskuen Ebaluazioa eta zerbitzua emango den BBUPEko instalazioen Larrialdietarako Jarraibideak.

Era berean, dokumentu hauek aurkezteko eskatuko zaio enpresa adjudikaziodunaren ordezkariari:

- a) Erantzukizun zibileko aseguruia eta ordainketan egunean egotearen egiaztagiria.
- b) Gizarte Segurantzarekin egunean egotearen egiaztagiria (hilero bidali beharko da).



- c) Egin beharreko lanen arriskuen ebaluazioa.
- d) Zama lanetako arriskuak eta prebentzio-neurriak zehazten dituen lan-prozedura, zeinean argi eta garbi adierazita geratuko baitira zerbitzua eskaintzen duten langileek baliatu behar dituzten NBEak.
- e) Frogagiria, garraioa azpikontratatu zaion, eta ondorioz BBUPen instalazioetakoren batean sartu beharko duen, enpresari (edo enpresei) arrisku-ebaluazioaren edukia eta lan-prozeduren berri eman zaiola adierazten duena.
- f) Hornidura hasi aurretik, kontratatutako hornituko dituen produktuen segurtasun-fitxak eta fitxa teknikoak bidali beharko ditu. Era berean, kontratuak irauten duen bitartean, segurtasun-fitxak bidaliko dizkio BBUPi, haietan aldaketaren bat edo eguneratzeren bat egiten denean edo hornitutako produktua aldatzen denean. Produktuaren sailkapenak, etiketatzeak eta ontziratzeak (EE) 1272/2008 (CLP) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko du.
- g) Nola esleipendunak hala garraio-enpresak (garraioa azpikontratatu den kasuetan) segurtasun-aholkularia dutela egiaztatzeko ziurtagiria.

Horretaz gainera:

- a) Bereziki arriskutsuak diren lanetarako prebentzio-neurri espezifikoak ezarriko dira, hala badagokio.
- b) Edonola ere, elkarrekin identifikatuko dira kontratatutako enpresak eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aldi berean eta batera egindako ekintzen ondorioz sortu edo aldatu daitezkeen arriskuak.

Lanaren exekuzioa

- a) BBUPek beharrezkotzat hartzen diren aldizkako bilerak deituko ditu kontratatutako enpresetako ordezkariekin, kontratatutako prebentzio-arloko teknikariekin, kontratuaren arduradunarekin eta BBUPen Lan Arriskuen Prebentziorako Departamentuarekin, eta bilera horietan jorratutako gaien akta jasoko da; kontratuaren martxaren arabera.
- b) Kontratatutako enpresari dagokio ziurtatzea zerbitzua ematen duten enpresek edo langileek arriskuen ebaluazioa eta lan-prozedura ezagutzen dituztela, bai eta beharrezko norbera babesteko ekipamenduak dituztela.
- c) Kontratatutako enpresari dagokio Baldintza Teknikoen Agiri honetan jasotako lanetarako beharrezkoak diren babes kolektiboko ekipamendu guztiak edukitzea (Adib.: Seinaleztapen-elementuak eta abar).
- d) Aldizka segurtasun-ikuskapenak egingo dira.
- e) Istripuren bat gertatuz gero Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioetan (alde batera utzita bakarrik eragiten ote duen), kontratatutako enpresak berehala jakinaraziko dio kontratuaren jarraipena egiteko arduradunari, eta, arduradunak, aldi berean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Lan Arriskuen Prebentziorako Departamentuari.
- f) Istripua BBUPeko instalazioetan gertatzen bada, kontratatutako enpresak istripua ikertuko du, eta Ikerketa Txostenaren kopia bat bidaliko dio kontratuaren arduradunari eta beste kopia bat BBUPen Lan Arriskuen Prebentziorako Departamentuari, beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

Sestao, 2025eko otsaila



Kontratuaren arduraduna,

Izpta.: Koldo Lekue Marcos.